



**ikastolak**



ARANGOITI IKASTOLA  
IRUNBERRI



Luis Sancet ezaguna dugu herrian. Izan ere, gaita jotzen aritzen da Irunberriko bestetan, baita inguruko herrietan ere. Berarekin hitz egiten aritu gara.

Arangoiti Ikastola

**IRUNBERRI** – Musikaz hitz egiteko eta beste hainbat kotuetaz aritzeko Luis Sancet elkarrizketatuko dut. Jakina, aukeratu dut Luis, musikaria delako, artzaina eta bihotz oneko pertsona, eta nire osaba. Gure artean, ikastolan, Irunberrin eta beste hainbat lekuetan ezaguna gaita jotzen duelako.

Aste honetan, San Isidro izanik, kalez kale erraldoiekin, dantzariekin eta plazan Larraindantza jotzen entzun dugu. Gaita eskolan hainbat gazte hasi dira eta haien inguruan galdetu nahi diot.

**Galdera asko, hasteko... Noiz? Nola? Zergatik hasi zinen instrumentuak, musika... jotzen?**

–Irunberrin musika zaletasun handia izan da, eta orain ere bada, zuek ere musika eskolan ibiltzen zarete. Hor izan ditugu txaranga eta banda; jazz bandak ere baziren. Gaur egun

**Luis Sancet**

MUSIKARIA

**“Irunberrin musika zaletasun handia egon da betidanik”**

ere, musika taldeak badira. Nik zaletasun handia izan dut beti eta 16 urte nituenean jarri zen martxan musika eskola eta hor hasi nintzen musikarekin eta instrumentuekin. **Zein instrumentu jotzen dituzu? Zein duzu gogokoena?** –Gaita jotzen dut eta hura da nire instrumenturik gogokoena. Hori bai,

beste instrumentu batzuk ere gustuko ditut: bateria, trikia, saxofoia, txirula eta hauek ere jo izan ditut momentu ezberdinetan... esan dezagun soinua ateratzen duen edozein tresna jotzeko prest izaten naizela. **Klaseak ematen hasi zara?** –Bai, gaita klaseak ematen hasi naiz herriko gazte batzuekin: Ander,

Eneko, Aimar eta Jorgerekin. Haien musika eskolako ikasleak dira edo izan dira eta bigarren instrumentu bezala hartu dute gaita. Guretzat gaiteroentzat Ifigo, Daniel eta niretzat momentuz taldea indartu eta etorkizunerako erreleboa ziurtatuko dugulakoan ari naiz.

**Noiz hasi, izaten dira klaseak ematen?**

–Iaz hasi ginen, aurretik ere izan dira beste gazte batzuk gurekin jotzen baino hau esperientzia eta konpromezu berri bat izan da. Irunberrikoak izanik, klaseak astelehenetan 8etan izaten dira, lan eta ikasteko ordutegiak moldatu behar izaten ditugu, batzutan azterketak, beste konpromisu batzuk azaltzen dira. Hala ere, zintzo ibili gara prestatzen.

**Non entsaiatzen duzue?**

–Udaletxe ondoan badugu lekutxo bat eta hor elkartzten gara.

**“Musika tresna guztiak ditut gogoko baina gaita, batez ere. Berriki, herriko gazte batzuei gaita klaseak ematen hasi naiz”**

**“Ikasleak oso jatorrak dira eta gogotsu etortzen dira, gauzak asko errazten duena. Edozeinentzat irekita dago gela”**

**Ikasleak, zer moduz moldatzen zara?**

–Ikasleak oso jatorrak dira eta gogoa dutelako etortzen dira. Horrek asko errazten du egin behar duzuna. Anderrek 8 urte ditu eta gogoz aritzen da atabalarekin, eta beste hiru gaiteroak ere. Dena den, gehitu nahiko nuke, edozeinentzat irekita dagoela gure atea parte hartu nahi duen edonorentzat, zuentzat ere. **Noiz jotzen duzue, ateratzen zarete?**

–Bai, bai ikasten duguna, dutena kalean jotzeko da festetan, Inauretietan eta deitzen duten lekuetan. Erraldoiekin, dantza taldearekin, kalejiran,...

**Eta zure seme-alabak? Instrumenturen bat jotzen dute?**

–Bai, bi dira, neska eta mutila eta haien ere musika zaletasuna badute, musika ikasi eta tronpeta hartu dute instrumentu.

Eskerrik asko Luis, oso ongi pasa dugu eta espero dugu zure gaiteroekin batera jaiak alaitzea. ●

**ALBISTE LABURRAK**

**Instrumentuak ezagutzuz: akordeoia**

**IRUNBERRI** – Akordeoi edo esku-soinua tekla instrumentu bat da, munduan zehar oso hedatua dagoena, nagusiki Frantzia, Ipar Amerikan, Kolonbian (vallenatoa) eta Brasilen. Akordeoiaren soinua atsegina eta jostagarria da, dantzara erakartzeko eta beste batzuetan lasaitzera eta barrura begiratzera eramateko. Hainbat akordeoi mota daude, adibidez, akordeoi diatonikoa, folkloreaki loturik oso zabaldua Euskal Herrian (trikitia), Parisen, Alemanian, Austrian, Kolonbian, Panaman, Mexikoko iparraldean eta Dominikar Errepublikan. Akordeoia hiru zati handitan banatu daiteke: diapasoia, hauspoa eta armonika kaxa. – *Narao*

**Tinbalak**

**IRUNBERRI** – Tinbala perkusio instrumentu edo musika tresna da, orkestra eta musika talde handietan erabilia. Kaxa, kobrezko esfera erdia da, larrua edo bestelako mintz elastikoa du eta mazoak kolpatuz jotzen da. Atera nahi dugun soinua arbera aukeratzeko da makil pareia. – *Oier*

**JAZZTOY AQUI, esperientzia ahaztezina**

**IRUNBERRI** – Egunak pasa diren arren, gogoratzeko modukoa da. Matxoaren 10ean, larunbatarekin, Jesus Arenas Irunberrira etorri zen banda txikiarekin eta Big Bandarekin, klarinetea jotzera eta bere komedia dibertigarria aurkeztera. Musika gustuko dugunok, komedia ere, gozatu egin genuen emaldiarekin. Gutako batzuk, aurreko egunetan banda txikiaren entsaiatu genuen. Hala ere, esperientzia ahaztezina bizi izan genuen. Sarrera dohakoa izan zen eta ikusleek biziki gozatu zuten ikuskizunaz. – *A.I.*

**LEHIAKETARAKO GALDERAK**

1. Noiz hasi zen Luis musika ikasten?
2. Gustuko al dute Luisen seme-alabek musika?
3. Zenbat lagun joaten dira Luisen klaseetara? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

**IRABAZLEAK**

- OINEZ BALEA (1):** Peio Isturiz (Paz de Ziganda Ikastola).  
**OINEZ BALEA (2):** Ana Sema (Mirandako Arga Eskola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitortu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.